

# EUSKAL ALDIZKARIAK 1977an

1977 urteko idazkultura aztertzean, inor guti gelditu da aldizkarien azterketan. Liburugintzari eman ohi zaio garrantzia. Ez dago gaizki. Baina ezin da ahaztu aldizkariak liburuaren ondoan duen abantaila pila: arintasuna, tiktasuna, irakurtereztasuna, merkeago izatea, gaurkotasuna, eta beste.

Edozein kulturatan aldizkariaren fenomenuari arreta gehiago egin behar bazaio, gurea bezalako kultura batetan are handiagoa da premia hori. Zergatik? Gurean, liburuak astunegiak dira, zailegiak askotan. Bai gaiaren eta bai hizkuntzaren aldetik erakarmen gehiago du aldizkariak, liburuak baino. Erreportaiatzko liburua, edota soziopolitikoak, falta zaigu euskaraz. Holatsuko gaiak euskaraz erabili direlarik, aldizkaritan erabili dira, eta ez liburutik. Euskal aldizkarien eta liburuen artean badago halako osagarritasun bat: liburutik literatura eta batipat irakaskuntza gaiak agertu dira 1977an; aldizkaritan, berriz, egoera soziopolitikoari hurbildik lotzen zaizkionak gehienbat. Irakurtzaren indize bat egin behar bagenu, zalantzarik gabe aldizkariaren faboretan joango litzateke. Gisa da.

Sarrera orokor honen ondotik, on litzateke 1977 urteko aldizkarien gorabehera zenbait aipatzea.

## 1977: aldizkari berriak sortzen

Askoren ustetan ihazko urtea aldizkariarentzat negatiboa izan da. Balantze bat egiteko orduan ez dut uste, alde negatibo guztiak gorabehera, hala denik.

Aldizkarien munduan krisia dagoela hori bai. Nere ustetan, hazkuntza krisia. Egoera berri batetara eraman gaitu zenbait datu berrik, egunkarien sorkuntzak bereziki. Eta oraindik normalizapen batetara iritsi gabe gaude.

Krisi honetan galtzaile atera direnak, orain arteko euskal informazio segurtatu dutenak dira. Alegia, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta *Goiz Argi*. Azken

hau elebiko bilakatu da, baina beste biek euskara hutsari eusten diote (boluntarismo eta guzti).

Euskal aldizkariak krisipera eraman dituztenak *Deia* eta *Egin* egunkariak izan dira. Salakuntza ez baino konstatazio bat da. Idazleak kendu egin dizkiete. Publizitatea ere bai. Eta denen gainetik, irakurleak. *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aurki zezakeen informazioa, *Egin*en edo *Deian* aurkituko du orain irakurleak. Egunero ematen zaio informazio hori, gainera. Eta sarri erdaraz: irakurterezago, beraz. Lekurik gabe bezala, desplazaturik bezala, aurkitu dira euskal aldizkariak. Oraingo bidetara berria aurkitu duen bakararra *Anaitasuna* dirudi. Baina informabideen artean lekua aurkitu arren, iraupena ez da erreza: irakurleak aisago doalako egunkarietara eta erdarara. Superbizitzeko, urte gogorrek igaro beharrean aurkitzen dira, boluntarismo beharrean, ikastoletako eta alfabetatzeko irakurleak berria agertu artean behintzat.

Arestian idaroki dudanez, positibotik gehiago dugu 1977an. Zenbait aldizkari sortu edo birsortu egin da, eta beste zenbait indartu. Daturik inportanteena, ezpairik gabe, *Deia* eta *Egin* egunkarien ateratzea izan da. Dinamika berri baten sortzaile dira, aldakuntzaren eta giro berriaren aldarrikatzaile. Euskal Herria bere baitatik aipatzen dute. Euskarari tratamendu egokiagoa eta presentzia gehiago eman diote. Hori dena eta gehiago zor diegu egunkari hauei.

Hilabetekari bat ere sortu da, *Zer* izenekoa, Bilboko Euskerazaleak taldearen ingurukoa.

Saio aldizkarietan da, izan, aberatsena, 1977 urtea. Aurreko urtearen azken aldera agertu zen *Gaiak* Durangon, hiruhilabetero bi hizkuntzatan jarraitzeko asmoz. Urtearekin batean plazaratu zen *Jakin* kultur hiruhilabetekaria, urtearen barruan abonatuak doblatzen dituelarik. *Zehatzek* ere bere lehen zenbakia urte berean publikatzen du: aldizkari soziopolitikoak izan nahi du. *Saioak* ere agertu da Donostian, gehiena erdaraz.

Aldizkariok, liburuaren eta informaziozko aldizkariaren artean kokatzen dira. Gure egoerari dagozkion gaurko gai soziopolitikoak aldizkari mota honetan agertu ohi dira: Idazlanen titulurik gehienak gure gizarteari begirazkoak dira.

**Beste 50 aldizkari**

Aldizkariak aztertzen hasi eta, aipaturikoeekin geldituko bagina erren agertuko ginateke. Beste aldizkari mota asko ere badago gure artean. Klasifikapen probisional batetan, hirutan banatuko nituzke: politika aldizkariak, elkarte aldizkariak, herrietako aldizkariak. Hautako batzu aspaldikoak dira, eta beste zenbait berriak, baina denak orain indarberri lanean diharduenak.

Iturburuari begiraturaz, ba, aldizkari asko elkarte, talde, Asoziazio edo erakunderen batetik sortzen dira. Horietako batzu biziki ezagunak, hala nola, Arantzadiko *Aranzadiana*, *Anuario de Eusko Folklore*, Euskaltzaindiko *Euskera* boletina, Pariseko Euskal Etxeko *Elgar*, etab. Baina gehienak berri berriak dira, askatasunarekin batera azalduak, 1977an berean sortuak: *Euskalerriko Eskautak* Bilbon, *Pindar* Ipar aldean, Markina eta inguruko ikastolen *Zerutxu*, Algotako Ikastolaren *Etorkezuna*, Errenderiako Ikastolako BUPekoan *Zilipot*, Gipuzkoako Irakaskuntzako Irakasleen *Irakaslea*, Valladolideko Euskal Biltzarraren *Porrusalda*, Lea Ibarreko Guraso Elkartearen *Leaibar*, Euskal Herriko Gay Askapen Mogimenduaren *Gay Hotsa* eta holako beste asko.

Aldizkari sortu berriok ez dira guztiz euskaraz, hilabetetik beherakorik ez dago, erregulartasun eskasean ibili ohi dira sarri, elkartearen gorabeherak eta elkartideen eritziak agertu ohi dituzte.

Are gehiago ugaldtu dira politik aldizkariak, alegia, alderdi, sindikatu eta talde edo mogimendu politikoaren organu eta barne aldizkariak. Talde bakoitzak du berea. Beren artean oso desberdinak dira, ez ideologia aldetik soilki, aurkezpen eta itxura aldetik ere bai: EHASen *Euskaldunak* dotoretik EGAMeko Karraxira badago alderik. Ugari dira multikopiaz ateratzen direnak. Orrialde gutikoak dira gehienetan. Aipa ditzagun batzu: EAJen *Euzkadi*, PSOEren *Euskadi Socialista*, EIAREN *Bultzaka*, ESBren *Ezkerra*, ELAren *Lan Deya*, LAIA Ezen *Sugarra*, LABen *Iraultzen*, LKlren *Zutik*, HASlren *Hertzale*, CCOOren *Biltzar*, ETA(m)ren *Zutik*, ETA(pm)ren *Hautsi*, LSB-USOren *Sutegi*, GAlren *Kultur Iraultza*, OICren *Iraultza*. Ikus daitekeenez, euskaraz dira (PSOEkoa ez beste) izen denak, baina gehienetan erdara da nagusi, eta alde handiaz izan ere.

Eta azkenik, aipa ditzagun herrietako aldizkari lokalak, maiztasun gutikoak sarri, baina oso oirakurriak lekuko arazoketaz mamituak baitira. Hauetan ere badira tradiziozkoak eta bestelakoak. Tankera onekoaren artean aipa genitzake Oiarzungo *Oarso* eta *Lartaun*, Eibako *Gure Herria*, Debako *Luzaro*, Bergarako *Aritzondo*, Bilboko *Santutxu*, etab. Eta holako beste mila. Aipa ezin genezakeen beste hainbeste ateratzen da herritan eta hauzotan, bai normalki eta bai noizbehinka.

Aipatu ditugun aldizkari hauetatik asko, oraintsu arte *underground* izan dira, lurpekoak, debekatuak, legez kanpokoak (eta legearen kontrakoak, noski), frankismoaren garaian persegituak. Badira orain ere egoera berean jarraitzen dutenak, baina beste asko legeztatu egin dira alderdia edo sindikatua edo elkarte legeztatzerakoan. Beste hainbeste, sortu egin dira, pluralismoaren ezaugarri. Beste deus baino areago ideien plataforma dira aldizkariok.

Gure kultur inguruaren alderdi bati eman diogu begiratu bat estudio honekin. Sakontzeak mereziko luke. Izan ere, alde askotatik begiraturik, liburua baino ere gure herri bizitzaren ispilu hobea da aldizkaria: aldizkari ofiziala eta bestea, hedapen handikoa eta elkarte batetako, dotorea eta multikopiaz aterea. Denen artean osatzen da euskal kultura.

joan mari torrealday

